



3. Eskolarteko Boulder Ligaxka'21 - GIPUZKOA

EGITARAUA ETA PARTE-HARTZE OINARRIAK

1- Eguna eta lekua: Abenduaren 19a, Ibarra Kiroldegia, Aretxabaleta.

2- Partaideak eta mailak: Gipuzkoako ikastetxeetako neska-mutilek har dezakete parte. Mailak: alebinak (2009-2010 jaiotakoak), infantilak (2007-2008 jaiotakoak) eta kadeteak (2005-2006 jaiotakoak).

3- Izen-ematea: Probaren egun berean, prezioa 3 € partaideko izango da.

4- Ordutegia:

- Eskalada: 9:30-13:30
- Diplomak: 13:30-14:30

5- Helburua: Errespetu eta adiskidetasun balioetan oinarrituta, norberaren trebetasunak partaideekin neurtzeko aukera izango dute.

6- Proba sistema:

- Zirkuito itxi bat egongo da.
- Zirkuituaren helburua hurrek bloke guztiak probatzea da (15 bloke) zailtasun gutxiagotik gehiagora. Start-a eta Boulderra pegatinekin egongo da seinalizatuta.
- Haur bakoitzak fitxa bat izango du lorpenak apuntatzen joateko, X bat bidea osatzea lortzen ez diren saiakerengatik eta T bat bidea lortutako saiakerengatik.
- Maila bakoitzean sailkapen misto bakarra egongo da, hau da, sexu bereizketarik gabe (Ikusi "Sailkapen mistoa. Inkesta" eranskina).
- Maila bakoitzean sailkatutako aurrenengo hirurak diploma egiaztatu bat jasoko dute.

7- Opariak: Partaide bakoitzak **Camp Baseren** kamiseta bat jasoko du.

8- Lehen sorospenak: Sorospen zerbitzua DYaren ardurapean izango da.

9- Joan-etorria: Automobil partikularrak erabiltzeak, arazo desberdinak sor ditzake: segurtasuneko, trafikozkoa, aparkalekukoa, CO² igorpenak, etab. **Garraio kolektiboa erabili. TALDEAN GOAZ!**

10- Ezustekoak: Ezustekoren bat gertatuz gero, antolatzaileen esku egongo da zer egin erabakitzea.

11- Partaideen irudiak: Jarduera publikoa izanik, bai prentsan eta bai Federazioaren edo elkarte antolatzailearen webguneetan argitaratzeko bideo eta argazkiak aterako dira. Hala ere, umeen arduradunak argazkiak ez publikatzea eskatu dezake, bertan edo gmf-administrazioa@kirolak.net helbidean.

12- Aforoa: Rokodromoko gehienezko aforoa 100 partaide da. Beraz, izen-ematen duten partaide kopuruak aforoa gaindituko balitz, 2 txanda desberdinetan banatuko dira partaideak, 9:30ean lehenengoa eta 11:30ean bigarrena izanik.

13- Oharra: Izen-emate libreak antolaketako baldintzak onartzea dakar.